

Agustindarrak Euskal Herrian

Errazegi bestelakorik pentsa daitekeen arren, agustindarrak ez dira arrotzak izan Euskal Herrian. Alderantziz, San Agustinen Erregelak balio izan du, eta du, gure kalonje, fraide eta moja askorentzat.

San Agustin Hipona-koaz (354-430) ari naiz, noski, eta haren Erregelaren arabera beren bizitza antolatu duten Institutu eta kristauez. Agustindarren historia honek, beste Familia Erljiosoetan aurkitzen ez dugun bitasun bat du: alde batetik, juxtu erlijioso izan gabe ere (ez monje eta ez fraide, ez moja) elkarrekin taldeko bizitza arautua eratu dutenak daude, eta bestetik, Kalonje Erregularrak eta, Aita Santuek horrelaxe onartuta, San Agustinen Erregela eta izenarekin moldatutako Eskeko Ordena bi (1244, 1588). Guztiek merezi dute hemen argibideren bana.

Katedral, Kolegiata eta Ordenak

San Agustin Mendebaldeko Elizaren Guraso handietako bat da, beharbada handiena, eta ziur oihartzun intelektual luze-zabalena izandakoa, bere IV. mende hartatik gure mende hau arte. Euskaltzaleen artean, Orixek itzulitako *Aitorkizunak* (1956) liburua da Agustin aipatzean berehala gogora datorkiguna, baina Agustinen pentsamendu-ondarea liburu horretako historia pertsonala baino askoz gehiago da.

Teologo idazlea ez ezik, Hipona hiriko (Anna/bona/Bona: Aljeria) gotzaina izan zen Agustin (395). Eta beti izan zuen bere kristau bizitza pertsonala lagun eta lankideekin elkartasunean egiteko gogoaz; 391z geroztik talde-biziera horri atxikizitaion, eta 397an idatzizuen denentzako Erregela. Erdi Aro osoan, eta gero, bizi-proposamen horrek sekulako arrakasta ezagutu zuen Gotzai-


nen inguruko Katedraletako apaiz-taldeen elkarbizitza eratzeko arautegi bezala.

Urrats berri bat emanez, talde haiek ondasun pertsonalak erabat uztean (pobretasun horretarako zin egitean, esan nahi dut), Kalonje Erregularrak sortu ziren, erlijioso-bizimodu arautua hartu baitzuten osorik (1059). XI. mendetik aurrerako historia da batez ere hauena, eta orduan finkatutako horrelako Erakundeak Kalonjetarren artean jarri behar dira, adibidez Laterango Kalonje edo Premontretarren artean.

Familia agustindarrean, XIII. mendeak ekarri zuen berritasun handi bat: 1244tik aurrera ermitauek talde sakabanatuak elkartzera bultzatuko zituen Inozentzio IV.ak, eta hortik jaio zen "San Agustinen Ermitauek Ordena" (1256); berehalako batean, 300 Etxe izatera iritsi zen Eskeko Ordena berria (1270). Beste Familia Erljiosoetan bezala, honek ere bere Erreforma izan zuen XVI. ean, eta agustindar Adar berria jaio zen Erreforma hartatik, Agustindar Errekoletoen Ordena (1588), frantziskotarren artean kaputxinoekin gertatutakoaren antzera.

Euskal Herri agustindarra

Kalonje (*kanonigo*), Ermitau eta Errekoletko agustindarrak (denak, eta guztietan emakumezkoak ere tartean direla) Euskal Herrian ere txertatuko dira. Guztiek izan dituzte gurean beren Etxeak, eta gaur egun hor dago bizirik hainbat Etxe edo Monasterio.



Esan beharra dago, lehenik, euskal herrieta-ko serora-etxeek, Erregela eta fraide Ordenaren baten aterbea behar izan zutenean, sarritan San Agustinen Erregela hartu izan zutela, beste Ordenena baino lehenago, Erregela horrek duen arau-malgutasunagatik eta monakismo formalak baino herriarekiko egokitasun hurbilagoa zuelako. Hainbat euskal Serorategiren kasua gogora daiteke hemen horren frogatzat, izan ere lehendik egon bazegoen emakume-lagunarte bati bere bizimodua arautzeko baliatu izan da San Agustinen Erregela.

Agustindar Kalonjeak Nafarroako Katedral eta Kolegiatetan izan genituen: adibidez, Orreaga (c. 1135) eta Urdazubin (a. 1188), eta Iruñean bertan; Lapurdiko Lehuntze (a. 1150) eta Bizkaiko Ziortzan (1380) ere bai, baina kasu bakoitzean ikusi behar da San Agustinen Erregelak nola-ko moldea hartua zuen, izan ere batzuetan kalonje sekularrak izan baitziren, eta bestetan erregularrak, hau da, pobretasun pertsonala eta biziera arautua osorik onartzen zuten erlijiosoak.

Emakumezkoen artean, *agustindar kalonjesak* bereziki historia luzekoak izan dira gure herrietan, gizonezkoek baino iraupen hobea erakutsi dutenak: Iruñea (S. Pedro, 1241), Donostiako San Bartolome (c. 1250; Astigarraga, 1849), Hernani (1547) eta Artziniegan (1606) aurki ditzakegu.

Ermittau agustindarrak, berriz, Lizarra (1295), Baiona (1302), Iruñea (1356), Bilbo (1406), Badaia (1472), Azpeitia (1566) eta Durangon (1585) egon dira, eta XX. mendean segida berria izan dute, Bilbo, Neguri, Areeta, Gernika, Portugalete eta Loiu. Agustindar Adar bereko mojen artean dauzkagu, bestalde, Iruñea, Begoña, Bilbo, Durango, Erreterria, Aretxabaleta, Mutriku, Mendaro eta Aldatz (bat edo beste lehenago kalonjea izana).

Azkenik, gogoraz ditzadan *Agustindar Errekoletakoak*: hauen artean XVI-XVIII. etan ezzen izan euskaldun askorik; baina XIX-XX. ean batez ere nafarren pisua sekulakoa izan da Euskal Herrian ez ezik Ordena osoan ere: 1902an, Ordena oso-ko 396 fraideetako 299 euskaldunak ziren; 1970ean, 1.389etatik 532. Martzila, Monteagudo edo Hondarribia izan dira hauen komentu handiak. Eibar-en egon dira Adar honetako moja kontenplariak (1606-1940), eta gerrate ondoren Lekeition. Aipatzekoa da, gainera, Errekoletok gehienbat euskal herritarrek gidatutako Moja Misiolarien Kongregazioa (1947), besteak beste, J. Otxoa gotzain nafarrak (Monteagudo, 1889-1976) eta Esperanza Aierbe ataudar baten alaba nafarrak (Monteagudo, 1890-1967) sortua.

Euskal tradizio agustindarra nabaria eta emankorra izan da, Erdi Aroan hasita lehenengo, eta gero XX. mendean batik bat, hemen bertan moja kontenplarien Monasterioetan eta fraideen Ikastetxeetan, eta erbestean, Misiotako lanean (Filipinetan, adibidez).

Historia agustindar honetan ez da falta sona handiko izenik: Andres Urdaneta ordiziarra (†1568), Errodrigo Aganduru oriotarra (†1626), biak ere misionari handiak Asia Urrunean, edo azken mendean, Aita Biktorino Kapanaga idazle mañariarra (1897-1983), San Agustinen *Obra Guztiak* argitara eman (BAC, 1947...) eta *Augustinus* aldizkari akademikoa sortu zuena (1956).

Joseba Intxausti

Gehiago jakiteko

(2004): *Euskal Herriko Erlijiosoaren historia Arantzazu*. (F. Lasa, C. Alonso eta A. Mz. Cuesta. ren lanak: 156-160, 161-176, 178-188).

(1984): *Oñatiko Laterandarrak*. Oñati.

BENGOA, J. M. (2002): *Las agustinas recoletas de Eibar y su convento* (1603-1940). Madrid: Editorial: Avgvstinvs.